

BERRIZ ERE KLAUDIO OTAEGI

Hondarribiko Udalak, Euskaltzale Biltzarrera eta Euskaltzaindiarekin batean, aurtengo azaroaren 24ean eskaini zion Klaudio Otaegi zenari ongi merezia zuen omenaldia. Bertan, Patri Urkizuren hitzaldi bikaina entzuteko aukera izan genuen, Otaegiren bizitzaz zenbait zertzelada eta euskal literaturari eman zion eraginez. Literatura balioen aldetik ikuspegi ederra benetan Urkizuk txukun azaldu ziguna.

Horrek bultzatzen nau gaurko honetan lehenago **Hondarribia** aldizkarian (ikus 35. zenb., 8. orr.) eskaini nion artikuluari zenbait gehigarri luzatzera; bere emaitzetarik parte bat ohar eginaz, gizonaren nortasuna, trebetasuna eta kemena adierazteko.

Osagarri, gogoan har, geroztik bi irakasle egin zuten ikerketa, **Hondarribia** (39. zenb., 13. orr.) aldizkari berean "Otaegi mai-xua"ri buruz argitara emana, Arma Plazako egoitza eta ondokoen berriak eskainiz.

Francisco Grandmontagne idazlea, Bur-gosko Barbadillo de los Herreros-en jaioa ba-zen ere, Jose R. de Uriarterekin batean Buenos Aires-en **La Vasconia** aldizkariaren sortzailea, joan zen mendean Argentinako euskaldun jatorrikoei begira egina zenaren hura bederatzita urtez zuzendari zenak Hondarribian egin zituen bere lehen ikasketak osaba Klaudio Otaegirekin. Eta hara nondik zuen gure herri honen ezagutza. Bere lumaz eman zituen hainbeste saio euskaldun herbestera-tuei buruz eta haien fruitua dugu **Los inmigrantes prósperos** deritzan bilduma liburua. Izenburua, gehienentzat on zelarik, ez ordea Anjela Kerexeta Iparragirrenen alar-gunarentzat, han dakarren "Interviú"ren arabera.

Baina, "El vascuence de Buenos Aires" delako kapituluari dator osaba Klaudioaren

oroitzapen ezia. Zer gutiago lehen irakas-kuntzak eman zizkionarentzat? Eskuetan du-dan liburua, **Los inmigrantes prósperos** deitua, 1944. urtean Aguilar-Editor etxeak Madrid-en berargitaratua da eta 427. orrial-dean dakar aipamen hori. Kapitulu berean, aipamen horren inguruan, Luis Luziano Bonaparte printzearen goraipean eta lanen berri ematen du. Nor dioenez, haurtzaroan ezagutu zuen Hondarribian, osaba Klaudio-rengana etortzen zenean. Poliglota bezala aurkezten du, zeren hirurogeitabi hizkuntze-tara itzuli bait zituen Bibliaren zenbait zati. Eta emaitzarik ederrena euskarari eskaini. Hemen, euskalkien ikerketa ezetik, beraien hiz-kerera mota guzietara Biblia itzulpenak egin zituenez bertako laguntzaileekin. Laguntzai-le horietatik prestuenetako bat Klaudio Otaegi zelarik.

1857. urtean ekin zion Bonaparte prin-tzeak euskal lanei, bost urteren buruan hiz-kuntz atlas gisa mapa bat osatzeko. Lagun-tzaileen berri eman nuen Bruno Etxenikeri

buruz egin nuen lan batetan (ikus, **Euske-ra**, XXIV, 1980, 561-568. orrialdeetan). Baina Bonaparte printzea Euskal Herrira ekartzea K. Otaegiri zor diogu.

Otaegiren emaztea eta printzearen biga-rren emaztea ahizpak ziren, era berean Fran-cisco Grandmontagneren aitaren arrebak, eta jatorriz atharratzeak. Aldiz, Otaegik An-toine D'Abbadie, artean Hendaian bizi zena, adiskide mina Euskal Jaiak antolatzeari eman zionetik. Eta D'Abbadie izan zen, Klaudio Otaegiren bidez, 1856ko apirilaren 25ean Bonaparte printzearengana jo zuena, bere hiz-kuntz ikerketak hemen egin zitzaizkion. Horren bidez lortu genuen euskarari buruz inoiz egin den ikerketarik sakonena, gaur egungo eus-kalaririk gehienak hortaz oharu ez badira ere.

Klaudio Otaegiren lana garrantzitsua de-larik ere, eginaren adinakoa da eraginezkoa. Alde hortatik begiraturik, uka ezinezkoa gu-re gizonaren emaitza euskararen historian.

Juan San Martin



GAZTAÑA ERRIAK PIN-PAN

**"Aza olloak pil-pil
Bisiguak zirt-zart
Gaztaina erriak pin-pan
Aia goxo-goxo, epel-epel"**

Gabon kanta ahapaldi hau "La Alimentación doméstica en Vasconia" liburuari jasoa dago. Liburua duela gutxi argitaratu da eta bertan ia ehun lagun aritu dira datu bilketan.

Letrak, nolakoa zen garai bateko Gabon afaria erakusten digu, barauaren legepean zegoela, lehor antxa egungo egunerako.

Hondarribian, kanpoko bilketan aritu denak honela dio soil-soilki: "...ohizko afarian lehen platera aza edo azalorea duzu. Arrosela edo bakailaua. **Azken aldian**

karakolak sartu dira. Postretarako sagar errea eta arrozkoletxea."

Zein ote da "azken aldi hori"? Gutxienez gutxienez mende hasierara jo behar duzu. Badira oraindik gure artean ohitura hori ezagutu zutenak.

Harrigarria bada ere, Oiartzungo aipamenak argixeago uzten digu gaia: "Olentzero afarian honako jakiak izaten ziren: 1. zurruputun bijilia zopa bakailau apurrekin 2. azoliyo, aza olioztatua 3. arrosela parrilan errea 4. Karakolak saltsan 5. Gaztain erreak. Sagar-doa edaten zen.

Liburu bera eta gai berarekin jarraituz gero "Diferentes actitudes ante el consumo de caracoles" honela dio: "Gipuzkoan, edo ez dira jan edota, jan badira, oso noizbehinka gertatu da".

Behar den tokian jakin dadin, ozenki aldarrikatu behar dugu Hondarribian karakolak jaten ditugula, eta egun horietarako askoz lehenagotik enkargatu behar izaten zaizkiela saltzaileei. Irungo merkaturian hemengo baserriarrek saltzen dituztela eta egun horietan etxeko janak aberastasun handia duela hemen, bai jakietan, bai egun horietan.

Ez da horren aspaldi baserriarrek, Gabon-gaua gabe Gabonzaharra ospatzen zutela. Eta gure oroimenean gorde-tzen dira arrantzaleek, barkuetako kontuak garbitutakoan, bertako jatetxeetan egiten zituzten bazkariak (ez afariak). Tamalgarría da historia osatzen duten xehe-tasun hauek ahaztu izana.

Juan José Lapitz